

noaua

**Asteburu honetan
Kalezarren egongo da
jai giroa**

**Santixabel jaiak 2017:
Txosna gunean, etenik
gabeko lau jai egun**



**Laster zabalduko da Ugartondoko
etxebizitzan zozketan izena emateko epea**

LIZARDI LIBRYDENDA



IKASTURTE BERRIRAKO
LIBURUAK SALGAI
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

Ondo pasa
Santixabeletan!

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k



Santixabel festak ospatzeko
produktu goxoenak!

·harategia ·urdaitegia ·frutak
·barazkiak ·kontserbak ·bereztasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • Usurbil



Lizarralde
ORTOPEDIA

Bizi kalitatea hobetuz

Ondo pasa Santixabeletan!

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:30 / 16:30 / 19:30
Larunbata: 09:30-13:00

- ✚ Teknikari ortopeda kontsulta
- 👤 Arreta pertsonal eta espezializatua
- ☎ Online eta telefono bidezko aholkularitza
- 👤 Salmenta ondorengo zerbitzua
- 🏠 Etxera banaketa

- 🛠 Eskailera igogailuen instalazioa
- 🛒 Komun eta etxebizitzaren egokitzapena
- ✅ Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza
- 🩺 Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza
- 👣 Zapata eta ortesi gama zabala

ALOKAIRUAN:
Scooter-ak,
gurpildun aulkiak,
ohe artikulatuak,
taka-takak,
garabiak...

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus

Albiste iruditan

Agur eta omenaldi festa Zumarten

Hurrengo bi urteotan berri eta handitzera doazenez, merezitako "gero arte" festa eskaini zioten Zumartekoek ekainaren 17an, 32 urtez egoitza baino askoz gehiago izan duten Villa Pilar etxeari. Non eta, musika eskolaren gune ziurrenik ezezagunenean. Egun eskolaren atzealdea izan eta etorkizunean, gela berriak kokatuko diren Txaramunto kale aldeko zelai ederrean. Egun osoz, Zumarteko musikarien emanaldiez gozatzeko aukera izan zen.

Jaialdian zehar, hiru izen ere nabarmendu nahi izan zituzten. Duela 32 urte Zumarte martxan jarri zuten Roman Manteola, Txus Pagola eta Iñaki Mujika omendu zituzten. "Zumarteren altxorra izan zarete!", adierazi zitzaizen esker onez Zumartekoen aldetik oroigarriak banatzearekin batera. Ekitaldi berean, erreleboa ere irudikatu zen. Hiru lagunok musika eskolako zuzendaritza batzordea uztera baitoaz, eta haiek egindako lanari segida emango diote aurrerantzean, Agurne Alkorta (lehen-



Aurreko asteburuko ekitaldian, Zumarte martxan jarri zuten Roman Manteola, Txus Pagola eta Iñaki Mujika omendu zituzten.

dakaria), Iñaki Zugastik (idazkari nagusia) eta Aitor Bautistak (diruzaina). Omenduak eskerrak helarazi nahi izan zizkieten "irakasleei, ikasleei, gurasoei, Udalari eta laguntza eman diguten guztiok". Xabier Arregi alkateak zoriondu eta eskertu zituen

omenduak eta Zumartek urteotan osatu duen ibilbidea goraiatu: "Proiektu bat izatetik herri dimentsioa hartu duen egitasmo kolektibo izatera pasa da". Zumarteren "gero arte" festako irudi bilduma, noaua.eus atariko Argazkitegian duzue ikusgai.

Laburrean

Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak

2016ko irailetik 2017ko abuztuaren 31ra bitarte helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egindako usurbildarrek udal diru-laguntzak eskatu ahalko dituzte ekainaren 26tik uztailearen 7ra udal erregistroan.

Pagazpe, Berria Txapelketako finalean

Ekainaren 25ean igandearekin jokatu da Berria Txapelketaren final nagusia Hernanin. Pagazpe K.E. heldu da azken txanpa honetara. Tolosako pilota taldearen aurka lehiatu da arratsaldeko 17:00etan hasita.

Aisialdi ekimenen hasiera

Udako oporraldian murgildu dira ikasleak. Udarako antolatu diren aisialdi ekimenetan martxan jartzen lehenak Aginagako txokoak izango dira. Ekainaren 26tik uztailearen 28ra luzatuko dira, 09:00-13:00 artean Aginagako ludotekan.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Jon Galbete, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Imanol Ubeda

Aspaldikoak eta egungoak

Festa garaia da Usurbil aldean. San Joan zein Santixabel jaietako gehigarri bereziekin aritu gara lanean egun hauetan eta, akaso, horregatik izan da. Halako batean *Lurra, lana, izana: Usurbilgo emakume baserritarren ahotsak* (Usurbilgo Udala, 2015) liburuaren oihartzuna etorri zait burura. Apalera joan, liburua eskutian hartu eta 'Aisialdia eta festak' atalera jo dut. Ahapaldi hauek datoz bertan:

-Gero herriko festak etortzen ziren, Santixabelak eta San Juanak Kalexarren, eta herriko festetara joaten ginen. Aurreneko mutilak baserrira etortzen ziren oilasko biltzera koadrilan, denak mu-

tilak, e? *Eta mutilekin herriko festetan elkartzeko geratzen ginen gutxi-gora-behera. Gu dantzara jaisten ginen eta gero mutilek neska-laguntzea egiten zuten. Baina hamarretarako etxean egon behar ginen eta oilasko biltzen ibilitako mutil horietako bat topatzen genuen eta haiek Usurbildik baserriraino laguntzen ziguten, han muxu bat edo beste eman, eta ala, bakoitza bere lekura! Eta solamente eskuak oso luzeak baldin baziren, hark ez zuen baserriraino lagunduko, kieto, erdibidea baino lehenago bueltatuko ziren, Usurbilera, a tocar la filarmonica! (45 eta 65 urte arteko emakume baten lekukotza. Ez da izenik aipatzen. Liburuko testigantza ge-*

hienak modu anonimoan jaso zituzten).

- Oilasko biltzailetan neskak orain hasi dira parte hartzen. Hori kaleko gazteen tradizioa zen, kalekoak igotzen ziren eskean. Oraingo neska gazteek bai, baina guk ez dugu inoiz parte hartu izan (45 eta 65 urte arteko emakume baten lekukotza).

Azken testigantza honen segidan, 1974ko argazki bat dator. Gazte koadrila bat ageri da erretratuan. Hamalau bat lagun. Neskak eta mutilak. Oilasko biltze lanetan batutakoa argazkilariari erakusten ari dira. Batzuk serio, besteak irribarrez. Txintxo demonio denak. Deigarria egin zait janzkera. Ez daude

baserritarrez jantzita. Ezta galtza bakero, kamiseta zuri eta zapiarekin moztorturirik. 'Normal' jantzita ageri dira. Kaleko janzkerarekin. Batzuk zapi bat dute lepoan loturik. Baina ez denek. Argazki oinak honela dio: Kalexarreko San Roke jaietan emakumeak irten ziren lehenbiziko aldiz oilasko biltzaillean. Tapia trikitalaria bertan zen ere. 1974. Iturria: Mertxe Aizpurua.

Alegia: aurten, oilasko biltzaile lanetan aterako diren horien amonak edota izebak izan ziren lehenak. Aitzindariak, nolabait esatearren. Aurten, oilasko biltzaile lanetan aterako diren horiek, jakingo al dute?

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Denetariko ekimenak, Gaztelekuko udako eskaintzan

1 2-16 urte arteko gazteei zuzenduriko aisialdiko udal zerbitzuak prest du udako egitaraua.

Ekainaren 27an hasi eta uztailaren 21era bitarte Gaztelekutik hainbat ekimen antolatu dira. Adi Gaztelekuko oharrari. Zenbait irteera programatu dituzte uda parterako. Txango

hauetan parte hartu aurretik guraso baimenak helarazi behar dira Gaztelekura.

Irteerak:

- Ekainak 27, asteartea: 12:00-18:00 Paintball Zubietan (DBH3).
- Uztailak 14, ostirala: 12:00-19:30 Kayak Donostian (DBH2).

- Uztailak 21, ostirala: 12:00-20:00 Donostiako irlara (DBH1).

Ekintzak Gaztelekuan

(16:30-19:30 artean zabalik):

- Uztailak 3, astelehena: film proiektzioa denentzat.
- Uztailak 6, osteguna: Gaztelekua margotzea, erabil-tzaile guztien artean.

- Uztailak 10, astelehena: ur jolasak denentzat.

- Uztailak 13, osteguna: ur jolasak denentzat.

- Uztailak 17, astelehena: pizza tailerra denentzat.

- Uztailak 20, osteguna: pizza tailerra denentzat.

Argibide gehiago: 943 371 050. gaztelekua@usurbil.eus

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Abestuz ongi etorria, udako oporrei

Ekaineko kantu zaleen hitzordua ohi baino goizago heldu da orainoan. Ate joka duten udako oporraldiari abesten eman nahi izan zioten ongi etorria Kantu Taldeak, ekainaren 16an Kaxkoan barrena ospatu zuen kantu-jirana. Afaritarako bildu ziren gero Patrin.

Saio harekin hileroko kantu-jirei eta astearteroko entsegu saioei amaiera eman diete uda osterarte. Baina oraindik kantu zaleentzako azken hitzordu bat bada; Usurbilgo jaietan hain zuzen, uztailaren 1ean, 12:00-14:00 artean. “Kuxkuxtu taldearekin egingo dugu kantu jira. Goizeko 11:00ak aldean Patri tabernan elkartzen gara ezdarriak eta tripa pixka bat betetzeko. Han hamaiketako egiten dugu. Aurten Kale Nagusitik kalejira egitea pentsatu dugu, Iturralde Botika aurreko iturri horretan kanta pare bat



Uztailaren 1ean aterako dira kantuan. Zikiro-jana girotuko dute eguerdian.

edo abestu, hortik Artzabal aldera jo, gero Kaxkora itzuli eta zikiro bazkariarekin bukatu emateko”, berri eman dute Kantu Taldek.

Kantu-jiraren hitzordua:

■ Uztailak 1, larunbata (Usurbilgo jaien baitan):

11:00 Kantuzaleen hamaiketako Patrin.

12:00-14:00 Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantu-jira Kuxkuxtu txarangara.

rekin. Ibilbidea: Kale Nagusia, Iturralde Botika aurreko plaza-txoa, Artzabal, Kaxkoa.

Ondoren, kantu-zikiro jana Askatasuna plazan. Txartelak 25 eurotan (15 eurotan ikasle eta langabetuentzat) Bordaxon, Aitzagan eta Txiribogan salgai.

■ Irailak 12, asteartea

18:30-19:30 Udako oporraldi osteko Kantu Taldekoen ikastaroko lehen saioa Udarregi

Ikastolako kantu gelan. Hortik aurrera, asteartero bilduko dira ordu eta leku berean.

Antolatzailea: Kantu Taldea.

Ostegun honetan, Oreka TX taldearen emanaldia Sutegin

Oreka TX taldea “Hybrid*K” ikuskizun berria prestatzen ari da AINU etniako bi abeslarirekin eta hiru dantzari japoniarrekin batera. Txipren ofizialki aurkeztu aurretik, entsegu ireki bat egingo dute ostegun honetan, ekainak 22, 19:30ean Sutegin. Emanaldia ikusi ahal izateko, gonbidapenak banatuko dira alde aurretik. Gonbidapenak udalategian, liburutegian eta Sutegin jaso daitezke.

Ika-mika

Eskerrik asko

Ekainaren 16an “I. Antzerki gaubela” ospatu genuen, bakarriketekin. Taularatzeko formatu erraza izateaz gain, ikusleek gustura ikusi ohi dute.

Sutegira, hirurogei lagun etorri ziren, Usurbilgoak eta beste herrietakoak. Kopuru ona iruditzen zait, izan ere, Usurbilen ekitaldi ugari egiten dira eta aurreko ostiralean gaubelaren ordu berean bazeuden aukera gehiago (kultur agendan iragarri ez zirenak, eta agenda funtsezko tresna dela konprenitzen dut eragileon artean elkar moldatzeko eta herritarrak ez nahasteko). Sutegira jende gutxi etorriko ote zen beldur nintzen. Beno, arratsaldean Telmo Irureta filmarako etorritako lagun figuranteak gaubelarako gonbitaz baliatu ziren

eta horrek ere lagundu zuen. Arratsaldeko grabaketa luzatu zen eta justu samar ibili ginen 20:30erako ateak zabaltzeko, baina iritsi ginen, eskerrak Sutegin teknikari bikaina dugula (Iosu eskerrik asko!). Eta bakarriketek zer esan, Iñigo Dierrez eta Amaia Irazabal etorri ezinean aurkitu ziren arren, pieza eta talentu nahikoak izan genituen saio txukuna egiteko. Miren Segovia emakume gorra da eta bost minutuko pieza egin zuen zeinu hizkuntzan. Mireni toki ezkutu batean zegoen Jugatx Agirre usurbildarrek ahotsa jarri zion, euskaraz eta geroago gaztelaniaz (Iñigoren ordezkari agerraldia egin zuen Mirenek bigarren aldiz).

Dirudienez, “Sutegikoa lehen aldia izan da non gor baten zeinu bidezko bakarrik-

keta zuzeneko euskarazko itzulpenarekin egin den”.

Jarraian, Esther Uriak bere bakarriketa luzearen zatia egin zuen, gaztelaniaz, eta gozatu ahal izan genuen bere eskarmentu onaz. Jarraian, Enrike Amilibiarena ere kontuan izatekoa da, zeren urduritasunagatik aurreko egunetako entseguetan bezain ondo aritu ez bazen, lan ona egin zuen eta, nik dakidala, “berea izan da down sindromea duen aktore batek egiten duen lehenengo euskarazko bakarriketa”. Pieza laburra izan zelarik, lanean jarraituko dugu lan luzeago baten prestaketan. Enrikek aktorea izan nahi du eta abian da. Esan, Miren eta Enrikeren piezak nik idatzi eta zuzendu ditudala. Azkenik, Sutegiko agertokian, Telmo izan ge-

nuen, gaztelaniaz eta bukaera aldera euskaraz. Egun osoan bere filmerako grabaketen zuzendaritzan aritu eta gero, bakarriketan lan bikaina egin zuen eta eman zuen maila bikaina izan zen.

Bere umore zorrotzarekin ikus-entzuleak txundituta uzten ditu. Bukatzeko esan, bakarriketak Tolosako taberna batean egiteko proposamena iritsi zaigula (Usurbilen bezala afari goxo baten trukean), beraz, jarraipena izango du esperientzia honek (esan beharrik ez dago izaera inklusibo duela). Azkenik, Usurbilgo udalari eta zuzenean zein zeharka lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Datorren urtean berriz.

Alex Tello, Atea Teatro

Jaien abiatze eguna, dantzakoena baita



Dantzarien egun handia ekainaren 29a izango da. Baina ekitaldi gehiagotan ere arituko dira.

Azken urteon ildotik, Usurbilgo jaien hasiera Orbeldi Dantza Taldekoen ikasturte amaierarekin egokituko da. Festetan hiru hitzorduetan ikusiko ditugu dantza giroan. Baina haien egun handia, txupinazoa jaurtiko den ekainaren 29a izango da.

Iaz, festen hasiera ekitaldian Usurbilgo ereserkia txertatu eta bultzada eman asmoz, espresuki sortutako dantza plazartu zuten lehen aldiz. “Badirudi jendeari gustatu zitzaiola eta mantentzeko asmoa dugu”, adierazi dio dantza taldeak aldizkari honi.

Aurtengoan ordea, aldaketatxo bat txertatzekoak dira. Arraiketari txarangakoek jarriko diote musika ereserkiari eta usurbildarrak dantzan arituko dira. Txupinazo ekitaldiaren baitan guztia. “Helburua herriak herriko ereserkia abestea da. Guk gehigarri bat eskaintzen diogu dantzarekin, ekitaldiari”, gaineratu

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Usurbilgo jaien aurretik, asteburu honetan Kalezarreko festetan ikusiko ditugu eta abuztuan Urdaigako Xanixtebanetan”

dute Orbelditik.

Ereserkia dantzatu eta frontoira

Ereserkia dantzatu ostean, Arraiketari txarangakoak, festak ofizialki abiatu eta segidan emanaldia eskainiko duten frontoiraino bidelagun izango dituzte dantzariak. Dantza tradizionalak izango dira bereziki eskainiko dituztenak. “Euskal Herriko lurralde ezberdinetako dantzak ikusiko dira. Adin ezberdinetako jendea ikusiko dugu dantzan. Txikienak 5 urte izango ditu, eta helduenak 70 urteren bueltan”, iragarri dute. Iaz, ordura arte urte luzez igande eguerdian

eskaini ohi zuten jaietako emanaldia txupinazo eguneraurreratzearabaki zuten. Ideiak publikoan harrera bikaina izan zuen, eta talde barruan ere aldaketa hoberako izan zela nabaritu zuten. Ereserkiaren dantza eta frontoiko emanaldia egun berean eta segidan ospatzea erosoago zaie, jada egoki jantzita eta prest daudela baliatzen baitute bi hitzorduok egun berean ospatzeko.

Ikasturte amaierako afaria

Baina horretaz haratago, jaien hasiera eguna ikasturte amaieran Dantza Eguneko helduen taldeak biltzeko egunean bihurtu da baita. Aurten ere ekainaren 29ko ekitaldion ostean afaritarako bilduko dira. Haiek bezala guztiok jaiak dantza batean ospatzera animatzen gaituzte, izango da eta horretarako aitzakia bat baino gehiago. Eta giro alaiari amaitzeko, jaietan zaindaria lanak egingo dituen maskota ardatz hartuta, dantza ikuskizuna prestatzen dabilta jada.

Usurbilgoen aurretik, asteburuan Kalezarreko festetan ikusiko ditugu eta abuztuan Urdaigako Xanixtebanetan.

Usurbilgo ereserkia

Honatx Usurbilgo jaien hasieran abestuko den ereserkiaren letra:

Usurbil'ko kale nagusian
Txamunto'ko zapaterian
daukagu guk txoko bat maitea
euskal billera garbia.

Han egiten dira modu onian
konpondu gauza guztiak
tontuan ere arkitzen dira
pozez beterik gure artean.

Usurbiltarrak daukate
sagardia alkate (bis)
Irintziz pozturik, bildurak azturik
ibiltzen dira goiz arte (bis)

Sagardotxo maitea
erari pare gabea
argitu zazu mundua
arinduaz burua (bis).

Egitarauak Ibai Arrietaren diseinua dauka

Zer ote dakarte Usurbilgo jaiek? Egunotan jaikingo duzue, Usurbilgo Udalak argitara eman eta etxez etxe banatuko duen jai egitarauari esker. Egitarau diseinua, lehiaketa bidez hautatu da. Ibai Arrieta usurbildarrak irabazi du aurtengo txapelketa, eta berak eman dio forma eta itxura festetako programari.

NOAUA! Lehiaketan parte hartzen zenuen lehen aldia izan da?

Ibai Arrieta del Pico: Aurkezteko saiakerak azken urteetan ia urtero egin izan ditut, baina kontu bat eta beste, denbora faltan egon eta azkenean ez dut lanik aurkeztu izan. Lehen aldia izan da aurtengoa.

Lehiaketa irabazita, pozik ezta?

Pozik bai. Orain arte erabat autodidakta izan naiz. Argazkilaritzan dudak ezagutzen oinarrituta, diseinuko hainbat herraminta nire kasa ikasi izan ditut. Lehiaketa honetarako diseinu lana aurkezteko bezperatan diseinuko herraminta bati buruzko ikastaroa bukatu berri nuen eta lagungarria suertatu zait. Orain arte disko karatularen bat diseinatu izan dut. Azkena Ion Markel Saez de Urabain herritararekin elkarlanean, Rukula herriko taldearen diskoaren azaleko argazkiak eta diseinua. Egon dira beste batzuk aurretik; Hotzikara, Desegin,... Lagunei eginiko mesedetxoak.

Duzun argazki artxibo zabaletik abiatzen da lehiaketa honetara aurkeztu zenuen diseinu lana.

Hainbat urtez herriko festak jarraitu izan ditut argazki kamera lepoan nuela eta material dezente bildua dut. Horrek argazkia oinarri hartuta diseinu lan bat bultzatzea asko erraztu



Ibai Arrietak irabazi du diseinu lehiaketa eta berak eman dio forma eta itxura festetako programari.

IBAI ARRIETA DEL PICO

“Hainbat urtez herriko festak jarraitu izan ditut argazki kamera lepoan nuela eta material dezente bildua dut”

dit. Hortik abiatuta egin dut lan hori.

Argazkien aukeraketa erraza izan al da?

Ez. Urte askoan egunero kamera gainean nuela ibili izan naiz. Artxibo mordoa dago. Balekoak ez hainbeste, baina espero ez zenuen argazki altxor hori hor dagoen ikusteko denak begiratu behar dira.

Irizpide konkretu batzuk betetzen dituzte egitaraurako hautatu dituzun argazkiek? Herritarrak agertzea bai behintzat.

Bai. Azkenean, festetan, egitaraua edo programa ofizialekit aparte, egun horietan kolore

berezi bat hartzen du herriak. Eguneroko monotonia horretatik atera egiten da eta ateratzen den herritarrak bere irribarrea edo bere alaitasunarekin, bere kolorea ematen dio herriko festei.

Egitarau koloretsua horren emaitza.

Alde batetik koloreekin aniztasuna edo kolore bateko festak ez direla, denon festak direla islatu nahi izan dut. Bertan agertzen diren pertsonak edo jendea ondo pasatzen ari da, edo festako une bateko egoera bat da. Hori da azkenean festaren oinarria; herritarrak bere alaitasuna herriari eskaintzea, festa eder batzuk eginez.

Hautatu duzun formatuaz zer esan dezakezu?

Formari begira ez dut berrikuntza handirik egin; egitarau txikia, eraman erraza, sinplea. Helburua, egitaraua irakurtzen duenak orri bakoitzari edo egun bakoitzari bere denbora eskaini ahal izatea da.

“Gaur egun denok ditugu erremintak halako gauza politak egiteko”

NOAUA! Esperientzia errepikatzekotan?

Ibai Arrieta del Pico: Deia egin nahi nieke lehenik eta behin herritarrei, halako ekimenetan parte hartu dezaten. Denok ditugu erremintak gaur egun, etxean halako gauza politak egiteko. Garrantzitsuenak, gogoak eta sormena izatea da. Egia da egunerokotasunean halako lan batean aritzen ez gareno agian ez dugula halako erraztasuna. Datorren urtean ideia freskorik bada, edo denboraz ondo bagabiltza primeran, aurkeztuko gara.

Jai hauetan kamera hartuta ikusiko zaitugu berriz?

Ahal den neurrian gozatzen saiatuko naiz, lanak uzten didan heinean. Ohitura den bezala, kamera gainean izaten saiatuko naiz.

Gure Jorge okina, ekinez egina

1996 eta 1997. urte bitartean Usurbilen sorturiko HITZA JASOZ taldea baserriz baseri ibili zen bertako jakinduria eta euskara jasotzen. Helburua herriko hizkeraren lekukotasuna gordetzea eta herritarrei zabaltzea zen. 15 elkarrizketa gauzatu ziren eta gaur egun udaletxean eta ahotsa.com web gunean jasorik daude. Horietako bat Jorge Aizpurua Zeberio (1921-2004) okinari egindakoa da.

Nork ez du ezagutu izan herriko Kale Nagusiko okindegi-ko Jorge. Herrian autoa erosten aurrenetakoa izan zena, goize-ro-goizero baserriz-baserri eta auzoz-auzo ogia banatzen ibili zena.

Hamalau urte zituenean hasi zen lanbide honetan bere osaba bezala. Garai hartan labeak Miel "Largo" Zugasti bizi zen etxean ziren. 1923. urtean pasa zituzten labeak eta tresneria gaur ezagutzen dugun okindegira.

1936ko altxamendu faxistaren ondoren hasi zen gerrarekin batera, lana gogorrago egiten egoerak hala eskatzen baitzuen. Jorgek bi edo hiru mutil izaten zituen lanean. Goiz eta arratsalde etengabeko lanean jarduten zuten. Herrian zeuden milizianoentzat haragia ere erretzen zuten Usurbilen, beste inon ez baitzen horrelako laberik.

Egurra etortzen zela edota irina etortzen zela beti deskargatzen ibiltzen zen Jorge. Orduan uretan tente ere lo egin



Herrian autoa erosten aurrenetakoa izan zen eta goizero baserriz-baserri eta auzoz-auzo ogia banatzen ibili zen.

36KO GERRAN

"Goiz eta arratsalde etengabe lanean jarduten zuten. Herrian zeuden milizianoentzat haragia ere erretzen zuten Usurbilen, beste inon ez baitzen horrelako laberik"

zuela zioen.

Elizaren eragina

Elizako luistarren konpainiak ere indar handia zuen herrian eta elizako eragina agerian geratzen zen: gaueko hamabietatik goizeko jaunartzerara arte ez zegoen aurpegia garbitzerik. "Hamabietan hasi hor lanean labearen muturrean, suaren aurrean jarrita eta batetik egarriak akabatzen eta bestetik loari heldu ezinik; goizean joan elizara, hanka elizan sartu orduko, bankoan eseri orduko

lo. Je, ez zekiat elizan nik adina lo egindako asko izango denik".

Txaramuntoko bizitza

Txaramuntoko zapata denda izan aurretik taberna ere ezagutu zutela zioen Jorgek: "Han biltzen hituan Mutiloako Don Rikardo botikarioa, Parisko neskazaharra, mota askotako jendea: igeltseroa, Luis Maestro erlojugilea, Ramon Ezkerra...".

Usurbilgo lehenengo autoa

Usurbilen lehenengoetakoa kotxea erosten Jorge izango zen, lanbideak hala eskatzen baitzuen. Garai hartan herritik egunean goizetik gauera hogei auto pasako ziren.

Iñaki Agirresarobe

Behiak

Garai hartan kale etxeetan ere abereren bat izaten zen eta norberak etxerako esnea nahiz kanpora saltzeko ere jeztzen zuten. Gehienak Hortelanonera hurbiltzen zituzten eta handik egunero Karmenek bere zaldia eta gurdiarekin Donostiara eramaten zituen. Konporttoenean, Estankoenan, Kontseju Txikin ere behiak izaten zituzten ia etxe gehienetan. "Kaparotzen, Bizkarren, Santuenean, Zubietan, Aginagan... horietan denetan egoten hituan "paradako zezenak". Hala zioen Jorgek: "paradakoak" esaten zitzairen eta eramaten huan behia eta, zera galdetzen ziaten gainera noiz zeratua den eta... 3 pezeta kobratzen ziaten. Ernai geratzen ez bazen ere berdin. Hurrengo bueltan beste hiru pezeta halako batean geratu arte".

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

“Gure eta gure ondorengoen osasunagatik utzi diogu jateari”

Asteazken honetan amaitzekoa zuten, erraustegiaren gezur handiaren aurka herritar talde batek ekainaren 14an Donostiako Easo plazan abiatutako gose-greba. Baraualdian egin duten astebete honetan zehar, eragile politiko, sindikal nahiz herri mugimendu desberdinen babesa jaso dute gose grebalariek. Hainbat hitzaldi antolatu dituzte eta ekainaren 17an Easo plaza Gipuzkoa plazarekin lotu zuen giza katean, erraustegiaren aurkako aldarriak hiriburu erdigunea inguratu zuen.

Gose grebalariek, eguntan bertaratu direnen nahiz auzokideen aldetik jasotako babesa eskertu dute. Argi zioten gose grebalariek giza-kate egunean, “guk gure eta on-



Baraualdian egin duten astebete honetan zehar, eragile desberdinen babesa jaso dute gose grebalariek.

dorengoen osasunagatik utzi diogu jateari”. Gipuzkoak erraustegirik ez duela behar

gogorarazten dute. Ez dute amore emateko asmorik, “geldituko dugu!” itxaropentsu

agertu dira, eta gipuzkoarrei ez etsitzeko deialdia luzatu diete.

“Ez hemen! Ez Inon!” bideoklipa grabatzen ari dira egunotan

Ziur, erraustegiaren aurkako ereserkian bilakatuko den abestia izango dena sortu du Odolaren Mintzoak herriko musika taldeak. Kanta honen bideoklipa grabatzen dabiltza asteotan Peru Galbete usurbildarraren laguntzaz, herriko hainbat txokotan. Aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan izan ziren grabatzen. Hitzor- du honetan parte hartzeko alde aurretik eginiko deiak belaualdi ezberdinetako herritarrek erakarri zituen; hainbat gazte, baita leku eta ordu horretan denboraldiko azken-kantu jira antolatua zuen Kantu Taldeko kideak ere. Erraustegiaren aurkako banderolekin, abesten eta dantzan, erraustegirik ez zutela nahi adierazi zuten “Ez hemen! Ez inon!” aldarrikatzen.



Atzerapenik ez bada, uztailean prest izango dute bideoklipa Luken Arkarazok, Beñat eta Joanes Txuekak eta Jokin Irastorzak osaturiko taldeak.

Txosna gunean, etenik gabeko



Ekainaren 29an osteguna, goizeko 6:00etan abiatuko dira oilasko biltzaileak.

Eskaintza zabala eta antzeta prestatu du aurten ere Mikel Laboa plazan kokatuko den txosna guneko antolakuntzak. Laguntzarako deia egin dute. “Txosnetako txandak osatzeko lanekin ez gara hasi, baina eskertuko dugu usurbildarron laguntza txosnan txandak betetzeko”, adierazi diote txosna batzordeko kideek NOAA!ri.

Bide batez, aurrera begira, herri nahiz auzoetako Jai Batzordeetan parte hartzerari animatzen dituzte gazteak. Kasu bat baino gehiagotan, “ez dago erreleborik, eta gazte jendea behar dute. Gu ere Jai Batzordean sartu gara eta harreara ederra egin dute. Beldurrik gabe gerturatu. Festetan antolatzeke proposamenik duena ongi etorria izaten da. Ekarperek eztabaidatu eta erabakitzen dira bertan”.

TXOSNA GUNEA

Argi utzi nahi dute beste behin ere: “jaietan ez da onartuko eraso sexista, homofobo eta transfoborik”

Jai Batzordean, giro ona

Jai Batzordean dagoen giro ona nabarmentzen dute, hainbat proposamenen sorgune ere badela, eta herritarren arteko hartuemanak estutzen laguntzen duela. “Adin desberdinekin elkartzeko zara, harremanak handitzen dituzu”, azpimarratzen dute. Aurtengora itzuliz, argi utzi nahi dute beste behin; jaietan, “ez da onartuko eraso sexis-

ta, homofobo eta transfoborik”.

Menditik, oilasko biltzera

Sagardoz bustitako txistorra eta haragi egosiz hornituriko gosari ederrak abiaraziko du ekainaren 29an goizaldeko 06:00ak pasatxoan txosnetatik, oilasko biltzera irtengo diren “erromesaldia”. Aldaketa nagusi bat txertatuko dute aurtengoan; antolatzaileen esanetan, errepidea alboratu eta nagusiki menditik osatuko dute ibilbidea. Gainera, garai bateko tradizioari heldu nahi diote berri. Geldialdietan, oilaskoak biltzeko asmotan dira. Oilaskorik bilduko balute “afari bat egingo da horrekin” adierazi digute Txosna Batzordekoek. Kaxkora itzultzean, Mikel Laboa plazako jai gunean bazkaldu eta jolasak izango dituzte arratsaldean.

Erraustegiaren aurkako manifestazioa

Iaz deitu zuten lehen aldiz eta arrakastatsua suertatu zen. “Hain mobilizazio jendetsua izatea ez genuen espero. Aurten ia are jende gehiago animatzen den”, Txosna Batzordekoen esanetan.

Ekainaren 29an, 19:00etan

Erraustegiaren aurkako manifestazioa deitu dute ekainaren 29rako. 19:00etan abiatuko da txosna gunetik. Herri erdiguneko kaleak zeharkatu ostean, segidan txupinazoa jaurtiko den udaletxe aurreko plazan amaituko da. Oraingoan, ziurrenik gainera, txaranga ere bidelagun izango dute manifestariak. “Erraustegiko obrak hasi direla adierazi dute, eta guk festetan, usurbildarrok erraustegirik ez dugula nahi aldarrikatuko dugu”, iragarri dute.

lau jai egun

Bertsio gau berritua

Herriko musikariak abesti ezagunak jotzen ikusi izan ditugu urte luzez. “Usurbilgo musikarietari ere oholza gainera igotzeko aukera eman nahi genien”, adierazi dute Txosna Batzordetik. Hitzordu hau berreskuratzea erabaki du Txosna Batzordeak aurtengoan, hori bai, itxura berrituta. Musikari talde bakoitzak talde ezagun bat hautatu eta haren abestiak joko dituzte oraingoan.



Gazte bazkaria uztailaren 1ean egingo da. Txartelak Aitzagan eskuratu daitezke.

Gazte Eguna

Belaunaldi ezberdinak biltzeko eguna izango da uztailaren lehena. Jubilatua, haurrak eta baita gazteak ere. Gazte bazkaria ospatuko da txosnetan. Sarrerak aurrez Aitzagan eskuratu ahaliko dira. Iazko edizioaren ildotik, oraingoan ere otordura joatera animatzen diren koadrilei bereizgarriren bat eramateko deia egiten diete; kamisetak, txapelak...

Kontzertuak, frontoikoen ostean

Musika emanaldiak izango ditugu gauero jaietan. Kontzertu gehienak ekainaren 30ean eta uztailaren lehenean kontzertutako dira egitarauan ikus dezakezuenek. Kontzertuakaldi berean bi guneetan ospatzea eragotzi da. Honenbestez, lehenbizi frontoian ospatuko dira emanaldiak; hilaren 30ean Laiotz, eta uztailaren lehenean The Icer Company eta Skasti.

Segidan, txosna guneko kontzertuek hartuko dute, parranda giroa bizirik eusteko lekukoa. Ekainaren 30ean, Egurra ta Kitto eta Eztengiro izango ditugu. Uztailaren lehenean, hasteko Tremenda Jauria, “Madrileko taldea. Reggetoi feminista eskainiko digute”.

UZTAILAREN 1EAN

Gazte bazkaria animatzen diren koadrilak bereizgarriren bat eramateko deia egiten diete; kamisetak, txapelak...

Iaz arrakastatsua suertatu zen, jendetza bildu zuten Las Tea Partyko kideek. “Berriz talde

hau ekartzen saiatu gara, baina uda honetan ez omen dute birarik egingo”, adierazi dute txosna batzordetik. Gaua, Seymour Dj usurbildarrak borobilduko du. “Usurbilgo bi gazte dira. Usurbilgo Gazte Egunean jo zuten, Aginagan ere jotzeko asmoa dute. Kalezarren ere egongo dira”, azaldu dute Txosna Batzordeko kideek.

Usurbildarrez ari garela, he-

erriko beste bi taldeek, Rukulak eta Erokamerik emango diote amaiera aurtengo festei.

Gaupaseroentzako deialdia

“Urtez urte, geroz eta jende gehiagok parte hartzen du. Ia aurtentzabiztzen garen”, diote txosna batzordetik. Gaupaseroen argazkia aterako dute uztailaren 2an, goizeko 09:00etan Bordatxo aurreko errotondan. Aurretik, elektrotzarangak girotuko ditu, goizaldeko ordu txikiak.

Txapelketak, jaien amaieran

Jaiak amaitzeko, uztailaren 2an, arratsaldean, hiru txapelketa; musa, gaztetxoentzako auntoke ekimen arrakastatsua eta paella lehia. Koadrila bakoitzak paella bana egin beharko du. Arroza, sua, paellera eta gatza antolakuntzak jarriko du. Hortik aurrerako osagaiak, lehiakideen esku.

Auzo arteko “desapiyua”

Aurreko urteetako Elegante Eguna ordezkatzeko duen ekimen berria dugu. “Auzo desberdinen arteko partaidetza sustatzeko Gazteartekotik ateratako iniziatiba da”, azaldu digute Txosna Batzordetik. Herrian zehar joko edo erronka ezberdinei aurre egin beharko diete auzoetako parte hartzaileek. Ez da hemen amaitzen ekimena. “Pentsatu dugu Usurbilgo auzoetan ere, auzo guztiak elkartu eta ekintzaren bat egitea”, hortxe aurrera begira duten erronka. Auzoen arteko elkarlana eta parte hartzea sustatu nahi dute hartara.



Herrian zehar joko edo erronka ezberdinei aurre egin beharko diete auzoetako parte hartzaileek.

Bota Punttuba berpizteko saiakeran

Horretan ari da Jurgi Fuentes herritarra. Ikasturte berrirako taldetxo bat osatu nahi luke, eta Bertso Eskola berpiztu. Aurretik, ate joka ditugun jaietako bertso saioa antolatzen ari da. Amaia Agirre, Amets Arzallus, Etxahun Lekue eta Igor Elortza datoz ekainaren 29an 22:00etan frontoian ospatuko den emanaldira. Amaieran banatuko dituzte, Bertsopaper Lehiaketetako sariak.

NOAUA! Bertso saioa larunbat gauetz ospatu izan da urte luzez. Nolatan aldaketa hau?

Jurgi Fuentes: Egitarauan berez toki askorik ez zegoen. Oste-gun gauean jartzea pentsatu dugu, batez ere mantendu nahi izan delako ordua, gaueko 22:00ak aldera izatea. Txupinazo eguna izanda, jendea oraindik formal antzera egongo da, hurrengo eguna gainera jai eguna da Usurbilen. Jendea hurbilduko dela uste dugu.

Ia bertan behera uztetik, bi Bertsopaper Txapelketa antolatzerantz eman duzue



Jurgi Fuentesek talde bat osatu nahi du datorren ikasturterako.

JURGI FUENTES

“Helduen talde bat sortzea da asmoa. Aurretik ibilitakoekin hitz egiten ari naiz eta hurrengo ikasturtean taldetxo bat martxan jartzeko badut esperantza”

pausoa?

Festetako bertso saioa dela eta gerturatu nintzen Jai Batzor-

dera. Jai Batzordeko kide batek komentatu zidan aurten ez zegoela inor Bertsopaper Txapelketa antolatzeko lana hartzeko prest, eta ia nik egingo nuen. Esperientzia badut antolakuntza lanetan, bertsopaperak epaitzen eta baiezkoa eman nuen. Hori jada martxan egonda, zerbait berezia egitea pentsatu nuen. Ikusi nuen nola Udarregi Ikastolako LH 5 eta 6 mailetan bertsolaritza ematen den eta beste herri batzuetan

egiten den moduan, beraiei zuzendutako txapelketatxo bat antolatzea bururatu zitzaidan. Haietzako txapelketa antolatu dugu baina ez dakigu sortarik aurkeztuko duten, horretarako epe muga dela eta.

Bertsozaletasuna sustatu asmo dute txapelketok?

Zaletasuna sustatzeko izaten dira, ahozkotasunean trebatzen laguntzen du edota bertsolaritzan bidea egitera animatzeko ere baliagarria da. Une honetan, LH 5 eta 6 mailen ostean ez dago jarraipenik. Epe erdi luze batera ondo legoke DBH-n taldetxo bat sortzea. Datorren ikasturtean helduen talde bat sortzea da asmoa. Banabil aurretik ibilitakoekin hitz egiten eta hurrengo ikasturtean taldetxo bat martxan jartzeko badut esperantza.

Bota Punttuba bertso eskola berpizteko gogoz beraz?

Bai, hainbesteko tradizioa izan duenez herri honetan bai. Jendeak zaletasuna duela ikusten da, baina batu eta ekintzak egitea falta da.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan epaile

NOAUA! Bizkaian, bertsolaritza munduan murgildua egon zara denbora luzez.

Jurgi Fuentes: Mungian jaioa naiz. Umeetatik ibili nintzen bertako bertso eskolan. Gero, autoko gidabaimena atera nuenean Larrabetzuko bertso eskolara joaten hasi nintzen, eta hala, nahiz eta plazan bertsoan ez egin, bertso eskola batean eta bertso munduan ibili izan naiz bai antolatzaile, gai jartzaile moduan ere bai. Epaile ere sartu nintzen

2010ean jada txapelketetan, Bizkaiko eta gaztetxoan txapelketetan batez ere. Urte eta erdiz Bizkaiko Bertsozale Elkartean aritu naiz lanean, Bizkaiko bertso eskolen eta aisialdiaren arduradun moduan.

Bertsolazaletasunak bizirik segitzen du?

Zaletasun handia dago eta kopuruetan ere ikusten da geroz eta talde gehiago dagoela. Batez ere aurreko urteetan hainbeste egon ez

dena, bertsolariez gain, jada beste profil batzuk hasi dira garatzen; gai jartzaileak, epaileak, antolakuntzan aritzen direnak. Nahiz eta bertsotan ez egin, ekosistema horren parte dira.

Denetarik egin duzu bertsolaritza munduan. Zertan aritu zara erosoan?

Erosoan epaile moduan. Datorren ikasturtean Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ospatuko da eta hor ere epaileen taldean

nago.

Udakten mugitua datorkizu beraz. Zein izango da zure egitekoa txapelketa honetan?

Irailtik aurrera topera ibiliko gara. Orain trebatze fase batean gaude, bertan herrialde guztietako epaileak batzen gara. Arlo ezberdinetako informazioa jasotzen dugu eta gero ariketan ere trebatzen gara. Azterketa txikiak jartzen dizkigute noizean behin.

Jaietan ere, beldur barik

A skok ezagutuko duzue “Beldur barik”. EAE-ko erakunde ezberdinek, tartean Usurbilgo Udalak bultzatu eta indarkeria sexista prebenitzeko 15-26 urte arteko gazteei zuzenduriko egitasmoa da. Helburu argi bat du, “Beldur Barik jarrera bultzatzea”, egitasmo honetan aurreikusten diren ekimenen bidez. “Kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenak eraldaketarako konpromiso pertsonal zein kolektiboa adierazten dituzten jarrerak”, horixe litzateke Beldur Barik jarrera izatea.

Usurbilgo Udalak ikusgarri egingo du egitasmo hau, datozen hilabeteotan ospatuko diren herri eta auzoetako jaietan. Batetik “Beldur barik” kartelak jarriko dituzte jai guzuetan, eta pegatinak banatu txosna zein tabernetan, baita jende gehien biltzen dituzten ekitaldietan ere. Informazio gehiagorako: beldurbarik.org

“Eraso txikiena ere ez da onartuko”

Jai parekideen aldeko konpromiso argia berresten du Udalak ekimen honekin. Festetan denok ondo pasa, beldurrik gabe jai giroaz lasai asko gozatu eta



Indarkeria sexista prebenitzeko 15-26 urte arteko gazteei zuzenduriko egitasmoa da “Beldur barik”.

“BELDUR BARIK”

“Kartelak jarriko dituzte jai guzuetan eta pegatinak banatu txosna zein tabernetan”

denok gure espazioa izatea bermatu nahi du. Testuinguru horretan, Parekidetasun Saileko

teknikari eta zinegotzia ekainaren 12an jai batzordeetako ki-deekin bildu ziren Potxoenean. Irizpide batzuk finkatu ziren biler informatibo honetan. Eratorik gabeko jaiak izatea nahi dute, “eraso txikiena ere ez da onartuko”. Gertatuko balitz ordea, nola jokatu, norengana jo, zer egin jakiteko protokolo bat helarazi die Udalak Jai Batzordeei.

Lan honetan sakontzeko asmoa dute irailetik aurrera. Udalak onartua duen 2020. urtera arteko 2. Berdintasun Planean aurreikusten diren ekimenak garatu, eta oro har, gai honi buruz aritzeko ere herritarren gune bat osatzekotan dira udazkenetik aurrera. Argibide gehiagorako: Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Saila, 943 377 110. parekidetasuna@usurbil.eus

Jai parekideen alde finkaturiko irizpideak

- Jai Batzordeak jarritako idatzi, iragarki, ohar eta diruz lagundutako jardueran argitaratuko dituen gainerako jakinarazpenetan, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista bertutuko da.
- Pertsonen irudiak erabil-

tzerakoan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatuko dira.

- Ekintza jakinetan megafo- nia bidez igorritako mezuek ez dute kutsu sexistarik izan- go.
- Jai Batzordearen lan ba-

naketa orekatua izango da, estereotipoak apurtzea bi- latuko duela bertutuko du eta hori horrela izaten ez denean, neurri zuzentzaileak landuko dituzte.

- Jai Batzordearen zuzen- daritzari eta gauzatzen dituen ekintzei begira, ba-

loratuko da: sexu rolak eta estereotipoak hausten la- guntzen duten ekimenak; emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen dutenak; emakumeen kon- trako indarkeriaren in- guruan sentsibilizazio edo prebentzio ekimenak.

Klik! batean

Oreka-ariketa

Tximeleta Kirol Elkarteko kideek ikasturtea agurtzeko ekitaldia egin zuten aurreko asteburuan, Oiardo kiroldegian.

Argazkia: Ion Markel



Oilasko biltzaile txikiak plazatik abiatuko dira, goizeko 10:00etan

Ekainaren 24an, egun handian ospatuko da Oilasko biltzaile txikien eguna. Hasiera batean 09:00etan iragarria zegoen irteera, baina antolaketa batzordetik aditzera eman digutenez, goizeko 10:00etan irtengo dira Kalezar auzoko plazatik.

Horretaz aparte, honako jakinarazpen hau ere helarazi digute: "parte hartzen duten haurrek, guraso baten ardura-pean parte hartuko dute soilik".

Auzoan barrena, baserriz baseri kalejiran ibili ondoren, herri bazkaria egingo dute. Hori bai, txartelak aldeztatik eskuratu behar ziren Kaffa kafetegian (ekainaren 20ra arteko epea zegoen).



Ekainaren 24an, goizeko 10:00etan hasiko da oilasko biltzaileen kalejira.

Eskean hasiko dira festak

Urteko gau ederrenetakoa izan ohi da San Joan bezperakoa. Are ederragoa San Joan eskearen erritmoan. Sua piztu aurretik eta sua piztu ondorenean arituko dira bertsolariak eta trikitilariak jai giroan. Eskea amaitzen denean, Eronomia taldearen dantzaldia hasiko da. Aurten, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi izango dira eskean kantari arituko diren bertsolariak.



Ekainaren 23ko eskean, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi bertsolariak arituko dira kantuan.

noqua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noqua.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!



Soka Dantza, auzotar adinduak zoriontzeko baliatzen den ekitaldia

Bi lagun omentzen dituzte San Joan egunean. Aurten, Mertxe Arzallus eta Andres Aizpuruaren ome-nez egingo dute soka dantza.

Lehenbizi, Orbeldiren ikuskizuna

Auzotarren soka dantza baino lehen, herriko dantzariak ikuskizun bat eskainiko dute. 17:30ean hasiko da Orbeldikoen emanaldia eta, hori bukatzean, Soka Dantzari ekingo diote.

Ekainak 24 larunbata

- 17:30 Herriko dantzariak.
- 18:30 Soka Dantza.
- Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa hasiko da. Beste behin ere, Saizar Sagardotegia-ren eskutik.



San Joan egunez egingo da soka dantza. Ekainaren 24an, arratsaldeko 19:00etan. Aurten, Mertxe Arzallus eta Andres Aizpurua omenduko dituzte.

SAIZAR

Sagardoa · Sidra Natural

Betiko Sagardoa

Ondo Pasa San Joanak!

BODEGA
 ● Kale-zahar auzoa, 39 · Apdo. 68
 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
 ● +34 943 36 45 97
 ● sidreria@sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIKO ERRESERBAK
 ☎ 943 373 995

www.sidrassaizar.com

Jaiak, asteburu bakar batean

Ekainak 23 ostirala:

San Joan bezpera

- 15:00 San Joan eskearen irteera.
- 22:00 San Joan sua.
- Ondoren, eskearen jarraipena.
- Amaitzean, Eromeria taldearekin dantzaldia.

Ekainak 24 larunbata:

San Joan Eguna

- 09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.
- 11:30 Meza Nagusia.
- Ondoren, toka.
- 13:00 Gorritiren Showa.
- 14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.
- 16:00 Musa (izen ematea



San Joan eskea arratsaldeko 15:00etan hasiko da. San Joan sua, ohi bezala, gaueko 22:00etan piztuko dute.

15:30ean itxiko da).

■ 16:30 Buruhandiak.

■ 17:30 Herriko dantzariak.

■ 18:30 Soka Dantza.

- Ondoren, DJ Seymar.

Ekainak 25 igandea:

Umeen Eguna

- 10:00 XV. Ume krosa.
- 11:30 Jolasak.
- 16:30 Tailerrak.
- 18:00 Txokolatada.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:00 DJ Guderekin dantzaldia.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak · ispiluak
- barandak · kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

ANDER
ARANZAZISTROKI

industria
garbiketarako
sistema eta
produktuak

Ondo pasa
San joanetan!



Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

667 680 236

**bulegorako altzariak
eta hornidura**

**paper dendarako
artikuluak**



Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892
Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com



**LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

**Josue
Igeltseritza S.L.**

 606 37 21 05

*Ondo pasa
San joanetan!!!*

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

1985



1985



1985




1991



1992



1997



1995



Ugartondoko etxebizitzetan izena emateko epea uztailean zabalduko da



Aspaldiko egitasmoa da hau. Laster hasiko dira eraikitze-lanak. Argazkia: jaureg.com

Ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran zozketarako esleipen oinarriak onartuko dituzte eta uztailean irekiko dira izen emate zerrendak. “Eskatzaileak aipatutako kupo batean soilik eman ahalko du izena, eta kupo horiei dagokien etxebizitzarik esleituko ez balitzaioke, zerrenda orokorrera igaroko litzateke”, ohartarazi dute Udaletik.

Eraikiko den etxebizitza kopurua

■ Guztira: 122.
-Babes Ofizialeko 46 etxebizitza.
-Tasatutako 46 etxebizitza.
-30 etxebizitza libre.
Oharra: etxebizitza guztiek dagokien garaje plaza eta trastelekua izango dute.

Etxebizitzon ezaugarriak

Babes ofizialeko etxebizitzak
■ Kopurua: 46.
■ Ezaugarriak:
-2 logelako 20 etxebizitza, horietako bi minusbaliatuentzat egokitua.
-3 logelako 26 etxebizitza.
■ Bi bloke ezberdinetan banatuak egongo dira: bloke bakoitzean 2 logelako 10 etxebizitza –horietako bat minusbaliatuentzat egokitua– eta 3 logelako 13 etxebizitza eraikiko dira.

UGARTONDO

“Babes Ofizialekoak 46 etxebizitza izango dira. Tasatutakoak beste 46 etxebizitza eta 30 etxebizitza libre”

■ Bete beharreko baldintza ekonomikoak:
2016. urteko zerga-ekitaldiari loturik, honako gehieneko eta gutxieneko hauen artean egon beharko dute eskatzaileek:
-9.000 eta 39.000 euro kasu orokorrean.
-3.000 eta 39.000 euro, mugikortasun murriztuko pertsonentzat eta adimen-desgaituentzat.
■ Ez zaie gutxieneko diru-sarrerarik izatea eskatuko genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten pertsonen.

Tasatutako etxebizitzak

■ Kopurua: 46.
■ Ezaugarriak:
-2 logelako 20 etxebizitza, horietako bi minusbaliatuentzat egokitua.
-3 logelako 26 etxebizitza.
■ Bi bloke ezberdinetan banatuak egongo dira: bloke bakoitzean 2 logelako 10 etxebizitza –horietako bat minusbaliatuentzat egokitua– eta 3 logelako 13 etxebizitza eraikiko dira.

■ Preziook hartuko dira oinarri gisa:
2.110,00 euro /m2 erabilgarria.
Garaje itxia: 18.000,00 euro.
11,10 m2 tako trasteleku itxia: 6.200,00 euro.
■ Bete beharreko baldintza ekonomikoak:
-25.000 eta 58.500 euro kasu orokorrean.
-3.000 eta 58.500 euro, mugikortasun murriztuko pertsonentzat eta adimen-desgaituentzat.
■ Ez zaie gutxieneko diru-sarrerarik izatea eskatuko genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten pertsonen.

Gizarte-sektore ezberdinei zuzenduriko etxebizitzak

■ Minusbaliatuentzako 2 etxebizitza.
■ 70 urte edo gehiagokoentzako 4 etxebizitza.
■ Babes bereziko gizarte-sektoreentzako (haien kargura adin txikikoak dituzten guraso bakarreko bizikidetzak unitateak, indarkeria matxistaren biktimak, bananduak, dibortziatuak eta alargunak, eta ezintasun psikikoa dutenak) 5 etxebizitza.
-35 urte beherakoentzako 10 etxebizitza.
■ Aipatutako kupoen baitan ez dauden gizarte sektoreentzako 25 etxebizitza.

Bete beharreko baldintzak

■ Esleipendunek pertsona fisiko adinez nagusiak izan behar dute.
■ Eskatzaileek ezin dute inolako zorrik eduki Usurbilgo Udalarekiko.
■ Usurbilgo udalerrian etenik gabe erroldatuta egon beharko da (egoiliar izanik, gutxienez azken 5 urteetan, edota, hala izan ezean, azken 15 urteetan 8 urtez erroldatuta egotea). Edo Donostiako udalerrian erroldatuta egonik ere, etenik gabe Zubietako egoiliar izatea gutxienez azken 5 urteetan, edota, hala izan ezean, azken 15 urteetan 8 urtez.
■ Pertsona edo bizikidetzak-unitateko eskabide bakarra onartuko da, eta pertsona bera ezin izango da egon bizikidetzak-unitate batean baino gehiagotan aldi berean.

Egutegia

■ Ekainak 27 asteartea, 18:00: Zozketarako plieguak onartuko dira Usurbilgo Udalaren osoko ohiko bilkuran.
■ Uztailean: izen emateko zerrenden irekiera.

Informazio gehiago:

Usurbilgo Udala
943 371 951
usurbil.eus



Pertsona edo bizikidetzak-unitateko eskabide bakarra onartuko da, eta pertsona bera ezin izango da egon bizikidetzak-unitate batean baino gehiagotan aldi berean.

Txirrindularitzako elite mailakoak ere Ramon Unanueren eskolatik pasa ziren

Larunbat honetan, ekainaren 24an, Ramon Unanue zenari aitortza herritarra egingo zaio Usurbilen. Ondo merezitakoa, horretarako hamaika arrazoi baitago. Tartean, bere eskolan hezi zituen herritar bat baino gehiago elite mailako kirolari izatera heldu zirela. Txirrindularitzan hor dago Haimar Zubeldia, profesional mailara igo berri den Xuban Errazkin. Guztiak Ramonen eskolatik paseak. Baita Carbayedatarrak ere. Xabier Carbayedatarrak ere. Xabier 1988ko Olinpiar Jokoetan parte hartzeraz heldu zen, arreba Kontxi Espainiako Selektzioarekin entrenatzen.

Ramonen gidaritzapean, prestaketa bide luzea jorratu eta ahalegin itzela egin ostean noski. 1980. hamarkadan hasi ziren anai arreba Ramonekin entrenatzen. Xabier lehenik, Unanuek eskubaloiko jokalaririk entrenatzen zituen Santuenea auzoan. Gero Kalezarrera, egun Haur Eskola kokatzen den eraikinaren azpialdera lekuz aldatu ziren. Garai hartan, Carbayedatarrak oroitarazi digutenez, frontoi atzealdeko murala lantzen ari zen Jose Luis Zumetaren tailerraren ondora.

Xabier, ordurako txirrindularitza munduan lehen urratsak ematen hasia zen. Tartean, Tolosan egin zuen negu batez, prestaketa lana. Kontxi 1984an hasi zen Ramonekin entrenatzen, “ni baino bizikleta handiagoarekin, aurrez sekula ibili gabe. Gogoan dut lehenengo entrenamendu saioa: Aginagara joan etorria”.

“Ezinezkoa ez da existitzen”

“Lanean oso zorrotza zen”, oroitzen du Xabierrek. “Egunero eta batzuetan egunean bitan



Xabier Carbayeda 1988ko Olinpiar Jokoetan parte hartzeraz heldu zen. Arreba Kontxi, Espainiako Selektzioarekin entrenatzen.

XABIER CARBAYEDA

“Guri eta hainbeste gazte eta ez hain gazteei eskainitako denboragatik, merezi du omenaldia. Eskertzeko modu bat da”

ere bai”, entrenatu beharra izaten zen. Ramonek Savasan bere lan jarduna 16:30ean amaitu eta kirolariak prestatzen aritzen zen egunero gauera arte. Aldi berean kirol jardueraz bat baino gehiagotako herritarrak hezten aritzen zen, asteburuetan txapelketara joan etorriak... “Gaur egun ezinezkoa litzateke, prestatzaile batek hori guztia egitea”, azpimarratzen du Xabierrek.

Baina konpromiso bat hartzen zuenean, ezezkoarentzako lekurik ez zen Unanueren hitzetan. “Berak jartzen zizkigun entrenamenduak eta berak eskatzen zizun berak uste zuen adina. Troiako aldapa ez dakit zer piñoietan igotzea eskatu eta nik ezin dut esaten nion. Ondo oroitzen ditut Ramonen hitzak: ezinezkoa ez da existitzen”, dio Kontxik.

Prestakuntzan Unanuek kalitatearen aldeko apustua egiten zuela azpimarratzen du Xabierrek. Gogor saiatuz bai, baina

elikadura, atsedena, eta analitikak zainduz. “Atletismoan ikasitakoa beste kirol jardueretan aplikatzen saiatzen zen”, oroitzen du. Bere indargunea pesak egitea zen, “kirolari guztiok egiten genuen. Berak zioen, pertsona indartzen badugu, gero edozein kirolean errazago izango du helburuak lortzea”. Kontxik dioenez, filosofia horrekin, “askori ondo joan zitzaigun”.

Irabaztera, aurrez ondo prestatuta

Helburuak finkatzen zituen Ramonek. Xabierrek dioenez “altu samarrak. Parte hartzea ez zen nahikoa. Irabaztera joan behar zen. Baina irabazi, aurrez jasotako prestaketa on batekin”. 1988ko Olinpiar Jokoetara ere hala heldu zen. “2-4 urte lehenago finkatua zegoen helburu bezala. Guk urruti ikusten genuen, baina pixkanaka, lan askorekin lortu genuen”.

Ramonek irakatsitakoari segida ematen dabilta egun. Buruntzapki Eskola martxan dute duela 9 bat urtetik. 11-18 urte arteko gazteei txirrindularitzan aritzeko aukera eskaintzen diete. Bi anai arrebon semeak bertan dira. “Maila on batean ari gara”, adierazi digute.

Ramon Unanueri eskainitako larunbat arratsaldea

Ekainak 24 larunbata

■ 17:00 Hasiera ekitaldia Mikel Laboa plazan.

■ 17:10-20:30 Ramon Unanueren argazki erakusketa Mikel Laboa plazako jaiman. Ekainaren 26tik uztailearen 8ra, erakusketa Oiardo Kiroldegiko sarreran egongo da ikusgai.

Frontoian (17:10-18:55):

- 17:10 Futbito beteranoak.
- 17:45 Eskubaloia beteranoak.
- 18:20 Pilota egokitua.

Dema plazan (17:45-19:25):

- 17:45 Taldekako giza-proba.
- 18:20 Atletismo erakustaldia. Pisu eta mailu jaurtiketa (pisu jaurtiketan nahi duenak bola bota ahal izango du).

Mikel Laboa plazan (18:20-19:25):

■ Ginkana txirrindulari ausartentzat. Parte hartze irekia. Animatu eta ekarri txirrinda! “Etorri txirrindarekin plazara eta parte hartu ginkanan. Hamarnaka txirrindulari gazte entrenatu zituen Ramonek. Egin diezaiozun ohore, eta ekarri txirrinda”.

■ 19:30 Ramon Unanueren senideei aitortza herritarra eta hunkigarria Mikel Laboa plazan: txalaparta, ikurriñaren dantza, bertsoa, Idoia Etxebarriaren ohorezko harrijasotze altxaldia.

■ 20:00 Oiardo kiroldegian: Aitortza-plakaren eskaintza ekitaldia. Agur dantza.

Usurbil K.E. taldeak larunbat honetan ospatuko du bere eguna



Bazkarirako txartelak aurrez dituzue salgai Aitzagan, Bentan, Bordatxon eta Txiribogan. Argazkia artxibokoa da eta 50. urteurreneko festari dagokio.

Jokalari, entrenatzaile, guraso eta Usurbil Kirol Elkarte kide guztiak bilduko dituen eguna ospatuko dute larunbatean, ekainaren 24an. Denboraldia borobiltzeko antolatu

dituzten ekitaldien artean, herri afaritarako bilduko dira iluntzean frontoian. Txartelak aurrez dituzue salgai, Aitzagan, Bentan, Bordatxon eta Txiribogan. Helduen me-

nukoak (entsalada mistoa, otarrainxka, txerri saiheskia edo oilaskoa, eta denetariko pastelak) eta gazteenak (patea, otarrainxka, hanburgesa eta izozkiak).

Bidasoako Kontrabandistak ibilbidearen zazpigarren etapa

- Uztailaren 9an.
- Etxalartik Ibardinera.
- Ibilbidea amaitutakoan Usurbilera itzuliko dira. Ondoren bazkaria izango da eta nahi duenak izena eman dezake irteerara izena ematerakoan, dagokion diru kopurua ordainduz.
- Irteera nondik: Oiardo Udal kiroldegitik.
- Ordua: Goizeko 7:00etan.
- Garraioa: Autobusez.
- Ibilbidea: 21 km.
- Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kontuan:
Rural Kutxa: 30080259163005430321
Kutxabank: 20955069071068489805
- Izena emateko azken eguna:

- 2017ko uztailaren 5a.
- Izena ematerakoan ordaindu behar da:
Irteera soilik: 10 euro.
Irteera + bazkaria: 25 euro.
- Plaza mugatuak.
- Oharra: Andatza Mendizaleen Kirol Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean.

Usurbil F.Tren eguna

Futbol jokalaria, entrenatzaile, guraso eta zuzendaritzako kideak bilduko ditu Usurbil F.T.-k 2016-17 denboraldia agurtzeko larunbaterako antolatu dituen ekimenekin:

Ekainak 24, larunbata

- Goizean, klubeko txikienekin jolasak eta bazkaria.
- Gauean, Usurbil F.T.-ko kiodeen afaria.

2006an jaiotakoei deia

Urte hartan jaiotakoei, Usurbil F.T.-n jokatu nahi duten alebinei begira, guraso bilera deitu du Usurbil F.T.-k ostiral honetarako, ekainak 23, 18:30ean Haranen.

Euskal Herriko Emakumezkoen Lehen Trontza Txapelketa

Herri kirolek tarte berezia izan ohi dute urtero jaietan. Berrikuntza bat txertatu dute aurtengoan. Euskal Herriko Emakumezkoen Lehen Trontza Txapelketa ospatuko da uztailaren 2an, igandez, eguerdiko 12:00etan. Baita Gipuzkoako Goi Mailako Aizkolari Txapelketa ere.

Bezperan, uztailaren 1ean, idi eta zaldi demak eta giza proba antolatu dituzte arratsaldeko 18:30ean hasita.

Futbito eta pala txapelketen finalak

Ekainaren 27an jokatu dira. 16:30ean palako azken neurketak; emakumezkoen nahiz gizonezkoen arteko finalak. Nesken palazko finala jokatu dutenak: Garazi Urdangarin-Miriam Arrillaga // Nahia Eizmendi-Garazi Eizmendi. Aurretik, kirol egokituaren erakustaldia. Gaueko 22:00etan hasiko dira bestalde, futbito txapelketako finalak. Usurbilgo Pilota Txapelketako azken neurketak berriz, uztailaren 2an, 17:00etan hasita.

Irailen Benasquera asteburu pasa

- Irailaren 9 eta 10eko astebururako antolatu du Andatza M.K.T.-k. "Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3375 m) egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu", berri eman dute antolatzaileek.
- Izen ematea: uztailaren 12ra arte.
- Plaza mugatuak. Izen emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte. Lehenatasuna Andatzako kideek izango dute.
- Informazio gehiago, hartuemanetarako: andatza.com andatza@hotmail.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia

arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Garbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Astebururako langile bat behar dugu Laukoten okindegian. Bidali kurrikuluma helbide honetara: eelortza202@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska

edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrik emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetean emeak zainitzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta asteleneetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo emeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauz. 677 624 965

Neska farmazialaria seguituan lanean hasiko nintzake. Pertsona



Gure amatxok hiru eta sei urte betetzen ditu eta zorionak eman nahi dizkiogu. Muxuuuu!! Lierni eta Jone.



Zorionak Anje!

Ekainaren 24ean, 10 urte betetzen dituzu. Muxu potolo bat, Unax, Oihan, June eta Aratz.

OHARRA: 2017ko ekainaren 30ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: ekainaren 26an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketari egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzaz). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatría laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen

eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduakoa lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketari lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jateke batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati

eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanak eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketari lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil

pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketari lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketari lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurrume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaindaria.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitokia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guiupuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 27 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ekainak 22 - uztaileak 2

Osteguna 29 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 02 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

23 ostirala

- **Jaiak Kalezar auzoan.** Ikus 18. orrialdea.
- **Artzabalgo pintura ikastarokoan lanak** Sutegin ikusgai.

24 larunbata

- **Jaiak Kalezar auzoan.** Ikus 18. orrialdea.
- **Artzabalgo pintura ikastarokoan lanak** Sutegin ikusgai.
- **Aitortza herritarra Ramon Unanue Matxaini.** 17:00 Hasiera ekitaldia Mikel Laboa plazan. Xehetasunak 13. orrialdea.

25 igandea

- **Jaiak Kalezar auzoan.** Ikus 18. orrialdea.
- **Artzabalgo pintura ikastarokoan lanak** Sutegin ikusgai.

Artzabalgo pintura ikastarokoan lanak Sutegin aurkituko dituzue

Asteburuan, ekainaren 23tik 25era ikusgai Sutegiko aretoan, bai Artzabalgo pintura ikastarokoan lanak, baita Eguneko Zentrokoan eskulanak ere. Ostiraletan inaugurazio ekitaldi batekin abiatu eta asteburuan zehar ordutegi honetan bisitatu ahalko duzue:

■ Ekainak 23, ostirala:
Ordutegia: 17:00-20:00.

■ Ekainak 24, larunbata:
Ordutegia: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.

■ Ekainak 25, igandea:
Ordutegia: 10:00-13:00.



Artzabalgo pintura ikastarokoan lanak eta Eguneko Zentrokoan eskulanak ipiniko dituzte ikusgai asteburu honetan Sutegin.

Astelehenetik aurrera, Zirriborro tailerreko ikasleen lan erakusketa

Zirriborro Tailerrak ere, jaien bueltan antolatu ohi du pintura zein eskulanen erakusketa. Astelehenetik aurrera, Sutegin.

- Epea: ekainak 26-uztailak 2.
- Ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.
- Tokia: Sutegiko erakustaretoa.
- Zirriborro Tailerreko ikasleen pintura eta eskulanen erakusketa.



Datozenak

Oraindik bada danborradan izena emateko epea

Danborrada uztailaren 1ean egingo da. Entseguak astelehen asteazken eta ostiraletan egiten dira, Udaregi Ikastolako frontoian, ordutegi honetan: 20:00-21:00.

Ekainaren 30ean, Usurbilgo jubilatuen bazkaria

Ekainaren 30ean ostirala, eguerdiko 14:00etan Atxega jauregian. Txartelak erosteko azken eguna, ekainak 21. Aginagako Arrate, Santueneko Gure Elkarte eta Usurbilgo Gure Pakea Elkartean egoitzetan eskura daitezke txartelak, baita Gizarte Zerbitzuetan ere.

Uztailaren 1ean, zikiro jana Askatasuna plazan

■ Uztailaren 1eko zikiro janerako txartelak salgai 25 eurotan (15 eurotan ikasle eta langabetuentzat) Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
noaua.eus web orrian



Alokairua, salmenta, etxebizitzak, garajeak,
motorra, lanpostuak, trukeak...

ZURE OHARRA BIDALI,
EDO BILA ZABILTZAN HORI
ERRAZ AURKITU!

Merkatu txikia

www.noaua.eus



Lan-eskaintza

Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartean **informatikaria** behar dugu

Bete beharreko baldintzak:

- Euskara maila ona izatea
- Web eta sistemak kudeatzen trebetasuna
- Programazioan trebea izatea, webguneak Python eginak
- Datu baseen kudeaketa. SQL
- Lainoan lan egiten esperientzia
- Linux zerbitzarien kudeaketa

ttakun@ttakun.eus
943 37 14 48
Geltoki kalea 4,
20160 Lasarte-Oria




Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:



www.noaua.eus

Udarregi

IKASTOLA



On do paga santixabekak!!!

santixabe

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USUBIL

www.udarregi.eus